

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- **Otsoak, beldur-beldur eginda, ziztu bizian ospa egin zuen**
 - Nola dago: Mimikaz

Helburuak

- Nola egon egitura lantzea.

Prozedura

- Hezitzaileak, aurretik, "mimikaz" fitxako marrazkiak moztu.
- Ume bakoitzari bat banatu.
- Umee txandaka, tokatu zaien marrazki horren esanahia mimikaz adierazi eta taldeko gainontzeko umeek galderak egin nola dagoen asmatzeko:
 - "Haserre zaude?"
 - "Ez, ez nago haserre"
 - "Bai, haserre nago".
- Horrela egin ume guztiek beraien antzezpena egin arte.